# JUANA VISHENTA OLAVE

Música de R. Sarriegui. Poesía de Vilinch.




**1.**

*J. Vish.* Nagusi jauna, aushen da lana,
amak bigaltzen nau berorrengana;
*N.jauna.* Ay bigalduko bacinduque maiz,
zu ikusi ta konsolatzen naiz;
chinista zazu;
¡oso zoraturikan nakazu!!
orren polita nola zera zu?

**2.**

*J. Vish.* Amak esan dit, echeko errenta,
pagatzeko dirurik ez zuben ta:
ia eguingo diyon mesere,
illabetian gueyenaz ere,
ichogotia;
bara cierto da la ematia,
pasa báño len illabetia.

**3.**

*N.jauna.* Logratzia, erresh alare,
naiz ori ta beste cer nai gauzare:
seguro da la esan amari,
zu baldiñ bazatoz mandatari;
gudarik gabe;
nere borondiataren jabe
zu cera Juana Vishenta Olave.

**4.**

*J. Vish.* Beraz bertatik, nua echera,
poz aundi bat amari ematera:
oraiñ ariyo nagusi jauna
presaka juan biat amagana,
*N.jauna.* Ez zuacela;
portatu zaite nik nai becela,
gaur echera juan ez zaitecela.

**5.**

*N.jauna.* Zuben echia, dago irruti,
birian cer guerta izan bildurti:
bara iya pasa da eguna,
arratsa berriz dátor illuna,
oraiñ juatia;
chartzat iruqui nere maitia,
gaur emen bertan guerra zaitia.

**6**

Ez juan echera, bire oyetan,
gabaz, bakarrik eta illumbetan;
kontura, erori zaitia zu,
gabaz illumbian juan biazu.
peligro aundiz
eta obe dezu eun aldiz,
biyar goician juan egun 'arguiz.

**7.**

*J. Vish.* Ecetz etsiya. egon liteque;
ni emen guelditu eciñ niteque:
amak espero ..au gaberako;
eta ark espero naubelako,
juan biar det nik;
alaba ikusi baguetanik
amak izango ez luque onik.

**8**

*N.jauna.* Emen zuretzat, dira parako,
jaqui chit goshuak afaitarako:
erariya berriz jaungoikoa,
illak piztutzeko modukua,
ardo onduba;
ontzen urtietan egonduba.
Malagatikan da bigalduba.

**9**

*J. Vish.* Jauna berorrek, bañan alferrik,
badaqui armatzen lazo ederrik,
lazua eiz bague guera dediñ,
nere echian nai ditut eguiñ,
afaldu ta lo;
nayago ditut ango bi talo,
ta ez emengo milla errega!o.

10

*N.jauna.* Biyotz nereko, dama polita.
asmoz munda zaite aushen tori ta:
amasei duroko urre fiña,
sendatu nai zazun nere miña,
*J. Vish.* Ez jauna, ez, ez;
mereci beciñ kopeta beltzez,
esango diyot ecetz ta ecetz.

11

*N.jauna.* Gañera berriz, Juana Vishenta,
utziko dizutet echeko errenta...
quito zor dirazuten guciya,
kumplitzen banazu kuticiya,
*J. Vish.* ¡Lotsa gogorra!!
sufritzen dago gaur nere honra,
¡penaz malkuak darizquit orra!!

12

*N.jauna.* Nik ditut kulpak, ez eguiñ negar,
orlakorik ez nizun esan biar:
animan sentitutzen det miña
zuri ofensa ori eguiña,
maldiziyua:
ez daquit nun nekan juiziyua,
eskatzen dizut barkaziyua.

13

*J. Vish.* Barkaziyua, du ta eskatu,
nere biyotz onak eciñ ukatu:
erakutzi ditalako jauna
gaitz eguiñaren damutasuna,
konforme nago;
ez eguiñ ta ofensa gueyago,
gaurkua oso astutzat dago.

14

*N.jauna.* ¿Berriz nik eguiñ zuri ofensa?
¡arren orlakorik ez bara pensa!!
zaukazquit neskacha fiñ batetzat,
eta gusto aundiz emaztetzat,
artuko zaitut:
biyotzetikan esaten dizut,
zuretzat ona baderizquizut.

15

*J. Vish.* Ori egaiyaz, baldiñ badiyo,
neregana egon liteque fiyo:
bañan usatubaz kortesiya,
ama neriari licenciya.
eska bezayo;
*N.jauna.* Ori gustora eguingo zayo,
biyar goician juango naitzayo.

16

*J. Vish.* Banua oraiñ.-N. J.-Atoz onuntza,
birerako artu zazu laguntza:
adi zazu, morroy Joshé Juaquiñ,
echera farolan arguiyaquiñ,
ainguerú oni.
gaur zuk laguntzia da komeni,
quezquetan egon ez nariyen ni.

17

*Morroya.* Ainguerú ari, lagundu eta,
orra jauna eguiñ ostera buelta:
birian bai bildurcho zan bera,
bañan allegatu ta echera,
kontentu cegon:
oraiñ quezquetan ez du cer egon;
oyera juan ta pasatu gau on.

18

Eldu zanian, urrengo goiza,
nagusiyak zuben cumplitu itza:
juan citzayon amari echera,
andretzat alabe eskatzera,
amak chit firme:
artuta guero milla informe,
gueldítu ciran biyak konforme.

19.

Andik zortzi bat, egunetara,
edo amar ciran ez daquit bara:
ez amar eciñ kitezquen izan,
andik zortzi egunera elizan,
ezkondu ciran;
ezkondu ta echera seguiran,
gendia franko bazuten giran.

20.

Bost illabete, edo sei ontan,
ez dirade beti egondu lotan:
eman dute cembait girabira,
eta gozatutzen bici dira.
dichak ausarqui;
obeto eciñ litezque arqui,
espero dute aurcho bat aurqui.

21.

Dama gaztiak, ez egon lotan,
beguira zaitezte ispillu ontan:
gustatu ta virtute ederra,
andretzat artu bere maisterra,
du nagusiyak;
orla irabastera graziyak,
saya saiteste beste guziyak.

**Cooperativa de Consumo**
**del**
**Círculo de la Coalición Liberal**

GALLETAS OLIBET a precio de fábrica
Ultramarinos y Comestibles

VINOS Y LICORES DE LAS MEJORES MARCAS

CONSERVAS DE TODAS CLASES

QUESOS Y MANTECAS DEL PAIS Y DEL EXTRANJERO

Rentería

TALLER DE REPARACIONES

**A. MASSA**

Reparación y alquiler de Bicicletas

Accesorios

Se pintan motos y bicicletas

Reparación y limpieza de máquinas de escribir

Accesorios

Electricidad

Zabalbide, 4 RENTERIA